



Erligio Katolikoa

LMH 6





PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Erljio Katolikoa

Lehen Hezkuntzako seigarren maila

Egileak

Jesus Lacuey
Juan Manuel Rodríguez
Carlos Romera

Gainbegiratzaile teknikoa

María Gismero

IBAIZABAL

Aurkezpen gutuna

Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloko ikasleentzako liburuak prestatzeko garaian, oso kontuan hartu ditugu adin honetako haurren ezaugarriak. Ezau-garri horien arabera, ez da une egokia sintesi intelektuala lantzeko, ikasleek ez baitute horretarako behar besteko koherentziarik eta orekarik; alderdi horretatik, ziklo hau aproposagoa da haurren nortasuna sendotzeko. Ikasleek ezagutzak barneratzeari baino gehiago, ikasleengan ernamuntzen ari diren sinesteei emango diegu garrantzia.

Garai honetan, neska-mutilek ikuspegi berri batetik begiratzen diete munduari eta beren izateari: norberaren intimitatearen ikuspegitik, hain zuzen. Horregatik, mezu kristauari dagokionez, Jainkoa hartuko dugu historiaren ardatz, giza izatearen ardatz, eta Jainkoak Salbamenaren gertaeretan eta historian, kristau komunitatean, fededunen ereduan... duen eragina nabarmenduko dugu.

Alderdi hori kontuan hartuta eta horren arabera eratu ditugu, hain zuzen ere, gure liburuak.

- Bosgarren mailako liburuan, Jesusen aurkezpena egingo dugu, haren alderdi guztiei erreparatuta eta kristau bizitzan dituen adierazpen guztiak kontuan hartuta: Jainkoa Gizon egina; Maisua; Egia; zuzentasuna erakusten duen Bidea; solidaritatea; Jainkoaren Erregetza...
- Seigarren mailako liburuan, Jainkoak gizakiaren historian izandako eragina nabarmendu dugu. Salbamenaren historia azalduko dugu, Jesu Kristo oinarri hartuta. Bera da alfa eta omega, hasiera eta amaiera, gauza orori zentzua ematen diena.

Bestalde, bi liburuetan egin dugu ahalegin berezia munduari begirada garbiaz begiratzeko; kristauk bizitzari, maitasunari, lanari, bakeari... buruz zer pentsatzen duten erakusteko. Azken batean, munduan zergatik eta zertarako gauden azaltzeko.

Gertaera errealak eta zehatzak hartu ditugu oinarri, eta arreta berezia eman diegu ikasleek nerabezaro aurreko garaian izaten dituzten arazoei. Bosgarren mailako liburuan, ikasleek neska-mutil talde bat izango dute lagun, eta, unean uneko gertaerei buruzko gogoetaren bidez (albisteak, ereduak, datuak...) norberaren gogoeta sustatu eta mezu kristaua adieraziko dugu.

Mezu kristaua osotasunean eta Elizaren tradizioarekin eta irakaspenekin bat etorritik helarazten saiatuko gara; baina, aldi berean, mundu garaikideko arazoak ere landuko ditugu, ikasleen ulermen gaitasunari eta bizipenei egokituta, betiere.

Proiektuaren testuingurua

Gure iritzian, adin honetako ikasleei mezu kristaua iragartzeko garaian, testuinguru hirukoitz hau kontuan hartu beharra dago: haurrek bizi duten aldaketa sakona, nortasun krisiaren hasiera, eta gure gizartearen pluraltasuna.

Haurrek bizi duten aldaketa sakona

Adin honetan, aldaketa sakona gertatzen da, eta, pixkanaka-pixkanaka, haurren nortasun osoari eragingo dio aldaketa horrek. Baina, aldi berean, ez dugu ahaztu behar zentzuzko aldaketa ere badela, helmuga jakin bat duela: norberaren errealizazioa, giza osotasuna eta heldutasuna.

Aldaketa horrek nortasun krisia eragiten du, aldi berean; krisi sakona, gainera. Bizitzaren zentzua jartzen da auzitan. Oharkabean, hainbat galdera sortuko zaizkie ikasleei: Nor naiz ni? Eta besteak? Zergatik eta zer ikuspegitatik hartzen da pertsona aintzat?

Bizitzaren zentzuaren eta Jainkoaren beraren bilaketak lotura estua dute norberaren bilaketarekin, norberaren zalantzekin.

Nortasun krisiaren hasiera

Zentzuaren krisi horri loturik, ikasleek funtsezko hainbat esperientzia biziko dituzte: nor izatearen zailtasuna, besteek norbera aintzat hartzea, segurtasuna, aurrera egitea, etab.

Lehenago edo geroago erabaki bat hartzea eskatuko dien bidegurutze baten erdian kokatuta egotearen esperientzia bizitzen hasiko dira, oharkabean, agian:

- Bizitzako kontraesanak bizi dituzte, eta horiez ohartzen dira: garrantzizkoa da pertsonen errealizazioa, zoriontasuna, baina... munduak oso bestelako gauzak erakusten dizkie: gerra, gosea, miseria, gorrotoa...
- Zintzotasuna, egia... aldarrikatzen dira, baina hipokresiaz beteriko gizarte bat ikusten dute, gezurrez eta iruzurrez beteriko gizarte bat. Beraiek ere «zeregin bat» badutela ohartzen dira.
- Originaltasuna esperimendatzen saiatzen dira, janzkeran, orrazkeran... Norberaren nia berresteko bide bat da, beren askatasuna adierazteko bide bat.

Adin honetan mezu kristaua aditzera emateko, kontuan hartu beharrekoa da nerabezaro aurreko garaian ikasleek sentitzen eta bizi dituzten bizi esperientziak.

Gure gizartearen aniztasuna

Aniztasun sozial, politiko eta erlijiosoa nagusi den testuinguru batean bizi gara.

Aniztasun erlijiosoari dagokionez, ikasleek beren buruari galdetuko diote aukera guztiak ote diren baliozkoak eta aukera horietatik zeinek eman diezaiekeen zentzua norberaren nahiei. Kristautasun konbentzionala berraztertze-ko premiaz ohartzen dira. Izan ere, sarritan, kristautasun konbentzionalak erlijioaren eta Jainkoaren esperientziaren homogeneizazioa bultzatzen duela pentsatu ohi dute, eta horrek jarrera negatiboa harraraz diezaieke.

Horrek guztiak galdera bat sortuko die, lehenago edo geroago erantzun beharreko galdera hau: Nor da Jainkoa, niretzat? Zer esanahi dauka, nire bizitzan?

Mezu kristaua gure proiektuan azaltzeko gakoak

Jainko Aita

Gure ikasleek Jainkoaz duten ideia familian bizitako esperientziaren eta aldez aurretik jasotako erlijio irakaskuntzaren arabera da.

Jainkoaren ideia horretan, ordea, bereziki nabarmendu nahi dugu hazteko, salbamenerako, askatasunerako deia egiten digun Jainkoaren ideia, hainbat eta hainbat gizon-emakumeren bizitzari zentzua eman dion Jainkoaren ideia. Hau da, gure ikasleek Jainko pertsonalagoa eta pertsonalizatzaileagoa aurki dezaten lortu nahi dugu. Horregatik, gure testuetan Jesu Kristoren errealitatearen bidez aurkeztuko dugu Jainkoa, bizitzari zentzua eta norberaren nortasuna finkatzeko bidea ematen dela nabarmenduz. Bere egin du gure abentura eta Bera da gure abenturaren lekuko nagusia (eta pixkanaka haren aurpegia ezagutzuz –Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako liburuan proposatzen dugun ikerketa– eta haren mezua argituz –Lehen Hezkuntzako seigarren mailako liburuan– joango gara).

Gure bizitzako egunerokotasunarekin bat datorren Jainkoaren irudi bat erakutsiko dugu.

Jesus

Jesusen aurkezpena da ziklo honen ardatza eta gakoa, eta pertsonaia mirezgarrien eredu gisa azalduko dugu. Kristauen ereduaren bidez Jesusen giza alderdien berri jaso eta alderdi horietan sakonduko dugu. Eta, era berean, haren jainkozko alderdia ere nabarmenduko dugu: Aitak iragarri eta bidalia, gure Salbamena lortzeko «beste moduko» egina.

Jesus gaur egungo gizon-emakumeei laguntzera datorren norbait ere bada; kristauak beti laguntzeko prest aurkituko duena. Berak bezala guk ere gaizkiari aurre egiteko deia egiten diguna.

Gure testuen bidez adieraziko dugunez, hiru jarrera har daitezke Jesusi buruz: jarrera negatiboa, jarrera axolagabea eta fedean eta konfiantzan oinarrituriko jarrera (gogo biziz adierazten duguna, gure kristau bizitzaren eta fedearen bitartez).

Espiritu Santua

Espiritu Santua edo Jesusen Espiritua izenak erabiliko ditugu. Ikasleek Elizan duen garrantziaz jabetzea da gure xedea: Bera baita fededunei eusten dien indarra.

Espiritua gure ikasleen hazkundearen esperientziari loturik azaltzen saiatu gara, norberaren nortasunaren eta gizarte garapenaren bilaketari loturik.

Elkarlaneko ikaskuntza

Hezkuntza proposamen hau interesgarria iruditzen zaigu, Erljioaren arloarekin bete-betean bat datorrelako; izan ere, Erljioan, edukiak ez ezik, harremana, konpromisoa eta elkarlana ahalbidetzeko jarrerak ere lantzen dira. Azken batean, kristau komunitatea eraikitzeke funtsezko jarrerak.

Elkarlaneko ikaskuntzak honako oinarritzko printzipio hauek ditu: a) Aurrez aurreko elkarreagin aldi bereko eta kitzikagarria, gizarte trebetasunen garapenean; b) Elkarrekiko mendekotasun positiboa, ez lehiakorra; c) Norberaren erantzukizuna eta taldearekiko konpromiso pertsonala; d) Berdintasuneko partaidetza eta helburuak lortzeko aukera berdintasuna; e) Lanaren eta taldeak lortutako helburuen gaineko gogoeta eta jarraipena. Printzipio horiek gauzatzeko, honako elementu hauek hartu behar dira kontuan:

* *Taldeak.* Erljioan, garrantzi handia du talde lanak. Proposamen berriak elkarlaneko taldeen ereduari jarraitzen dio eta ikasgela antolatzeko era berri bat aldarrikatzen du. Taldeek sei kide izango dituzte, gehienez, eta lau, gutxienez; ahal dela, lau ikasleko taldeak osatzea komeni da. Taldeko kide bakoitzak ardura zehatz bat izango du, zeregin jakin bat. Bestalde, talde heterogeneoak izan behar dute; hau da, kideen ezagutza maila, gizarte trebetasunak, sexua, jatorrizko kultura eta abar kontuan hartuta osatuak.

* *Gelako ordena eta diziplina.* Ikasgela antolatzeko modua aldatzeaz gainera, aldatu egingo da ordenari, isiltasunari, lanari eta abarri dagozkien arauak ezartzeko modua ere, talde lanari egokitzearen, betiere. Ikasleek hitz egin, elkarreaginean jardun, informazioa eskatu eta bestearen ezagutzak egiaztatzen lagundu behar dute, besteak beste.

* *Irakaslea, bitartekari.* Irakaskuntza tradizionalan, irakaslea zen eskolaren muina, gelako jarduera guztiaren ardatza. Elkarlaneko ikaskuntzan, aldiz, irakaslea bitartekaria izango da, taldearen eta ezagutzaren arteko bitartekaria. Irakaslearen zeregina ezinbestekoa eta funtsezkoa izango da, orain ere, baina bitartekari den heinean, ez ardatz den heinean. Jainkoaren hitza ezagutzeko egingo duten ibilbidean gidari izango dute ikasleek irakaslea.

* *Ikasleen elkarlanerako borondatea.* Funtsezkoa da ikasleak ohartzea besteen premia dutela eta besteek beren premia dutela. Elkarlaneko talde bat osatze soila Erljio arloko oinarritzko edukia da, bere horretan, jarduera horretan mezu kristauak aldarrikatzen dituen oinarritzko hainbat jarrera garatzen direlako eta mezu kristaua erroak egiten joango delako, pixkanaka.

Elkarlaneko ikaskuntzarako metodologia

Taldeak

Mota askotako elkarlaneko taldeak antola daitezke: talde heterogeneoak, interes komuneko taldeak eta ausaz eratutako taldeak. Jakina, elkarlaneko taldeak osatzeko eginkizunean, funtsezkoa izango da irakasleak bere ikasleez duen ezagutza.

Talde heterogeneoak dira elkarlanerako aiposenak: ezagutza mailari dagokionez, goi mailako ikasle bat, maila ertaineko bi eta maila baxuko beste bat elkartuko dira, taldearen gaitasun intelektuala orekatua izan dadin. Sexuari dagokionez, bi mutil eta bi neska hautatuko dira. Gizarte trebetasunei dagokionez, lidergorako gaitasun handiko pertsona bat, gaitasun arrunteko bi eta joera barnekoia duen bat elkartuko dira, etab. Horrela sortutako taldeak eraginkorragoak dira, kidekoen arteko tutoretza, elkarrekiko laguntza, gizarte integrazioa, erritmo ona eta diziplina sustatzen dituztelako, «lagunak» berezita.

Taldeak eratzeko beste modu batzuk ere erabil daitezke (interes komuna edo ausazkoa, adibidez), jarduera jakin batzuetan, taldearekiko konpromiso sendorik eskatzen ez duten edo eduki jakin bat lantzeko jardueretan, hain zuzen.

Lau kideko taldea da elkarlanerako egokiena, esan dugunez. Lau kide baino gehiago elkartuz gero, oso litekeena da ikasle bat, bi edo gehiago taldetik at gelditzea. Hiruko taldeetan, berriz, erlazioetarako aukera gutxiegi dago. Lauko taldean, ikasleak elkarri begira egoten dira beti, eta, gainera, binaka lan egin dezakete, sei erlazio posibleekin. Kide kopuru bakoitiko taldeetan, binaka lan egin behar izanez gero edo kidekoen arteko tutoretza (elkarlaneko ikaskuntzan oso garrantzizkoa) landu behar izanez gero, beti gelditzen da kide bat bikotekiderik gabe.

Talde heterogeneoak eratzeko, oinarrizko bi baliabide erabil daitezke: ikasgelako zerrenda (ikasle bakoitzaren ezagutza mailari buruzko azken emaitza fidagarriekin) eta soziograma (ikasgelako kideen lidergorako gaitasuna, konfiantza eta onespena erakusten dituen).

Ikasgelaren antolaketa

Elkarlaneko ikaskuntza lantzeak ez du esan nahi, inola ere, gelan nahasmen handiagoa eta diziplina gutxiago egongo denik, ikasleak oihuka, hara eta hona eta kontzentrazioa galtuta ibiliko direnik.

Hori gerta ez dadin, ordea, elkarlaneko ikaskuntzaren garapen eraginkorra lortzeko arau batzuk ezarri behar dira gelan:

- Irakasleak ikasgelaren jarduera berehala kontrolatzeko moduak finkatu behar ditu: irakasleari arreta emateko seinalea, isilik egoteko seinalea, jarduera aldatzeko seinalea...
- Irakasleak ozen eta argi hitz egin behar die ikasleei, eta esaten duena arbelean idatzi behar du; jardueraren jarraibideak pixkanaka eman eta ikasleek ongi ulertu dituztela egiaztatu behar du.
- Irakasleak talde guztietan parte hartu behar du, aldi berean; talde guztiak zertan ari diren ohartu behar du eta ikasleei beren lanari buruzko helarazteko bitarteko batzuk finkatu behar ditu (txartel berdea, horia eta gorria).

Ikasgelako arauak positiboki enuntziatu behar dira, errealistak izan behar dute, hitz sinpleez adierazi behar dira eta ez dute asko izan. Banakako talderako nahiz talde lanerako baliagarriak izan behar dute.

Irakaslearentzat

Proposamen didaktikoa

Proposamen didaktiko honetan, unitateak lantzeko beharrezko orotariko material osagarria aurkituko du irakasleak. Honako material hauek, hain zuzen ere:

1. Ikasgelako programazioak


Oso tresna baliagarria izango da planifikazioa egiteko, eta unitateen ikuspegi orokorraz jabetzen lagunduko dizue. Programazioetan helburuak, ebaluazio irizpideak eta edukiak (kontzeptuak, prozedura eta jarrerak) azalduko dira; baita gai multzo bakoitzean landuko diren balioak, oinarrizko gaitasunak, ikaskuntza jarduerak, aniztasuna aintzat hartzeko jarduerak eta ebaluazio jarduerak ere.



2. Baliabide didaktikoak

Atal honetan, ikaslearen liburuaren orrialdeak osorik ageri dira, ikuspegi didaktikotik lantzeko honako proposamen hauekin batera:

- hezkuntza asmoak;
- iradokizun metodologikoak;
- jarduera osagarriak (zabaltzekoak eta elkarlanekoak);
- orrialde bakoitzean proposatutako jardueren erantzunak;
- orrialde ertzeko atal batzuen gaineko azalpena



3. Eranskinak

Orri motibatzaileetan proposatutako hamabi artelanen erreprodukzioa erantsi dugu.

Proiektuko materialak

Ikaslearentzat

Ikaslearen liburua

Honela antolatuta daude unitate guztiak:



1. Orri motibatzailea

Atal honetan, marrazki batetik eta protagonisten aurkezpenetik abiatuta, proposatuko zaie ikasleei. Unitate osoan zehar landuko dute artelan hori, eta gai batetik bestera aldatzeko haria izango da. Ikasleak motibatzea eta unitateko edukiak lantzen hastea da orri honen helburua.



2. Begiratu eta gogoeta egizu

Orrialde bikoitza da; bertan, aurkezpen labur bat eta zenbait jarduera oinarri hartuta, ikasleek unitateko gaiari dagokionez zer esperientzia bizi izan dituzten aztertuko dugu. Ez da ebaluatzeko moduko edukirik landuko, baina unitatean proposatutako edukiak barneratzeko funtsezko aurrelana izango da.

3. Ikasi atala

Honako hau ere orrialde bikoitza da. Bibliako kontakizun bat abiapuntu hartuta, unitate bakoitzeko kontzeptu edukiak lantzen dira bertan. Gainerako ataletan bezala, hemen ere zenbait jarduera agertzen dira, edukietan sakontzeko.



4. Osatu zure ezagutzak eta Gure ezagutzak elkar banatzen

Lehenengo atalean, unitatean ikasitakoa berrikusteko eta sakontzeko hainbat jarduera daude.

«Gure ezagutzak elkar banatzen» atalean, elkarlaneko ikaskuntzako jarduerak egingo ditugu eta pertsonaia batek hurrengo unitaterako sarrera egingo du.

5. Beste zenbait erlijio

Atal honetan erlijio monoteisten (judaismoa, kristautasuna eta islama) funtsezko ezaugarriak aipatzen dira. Erlijioen gaineko ezagutza eta erlijio aniztasunarekiko errespetua bultzatzea du helburu.



6. Hiztegia

Hiruhilekoan landutako unitateetan agertutako oinarriko hiztegiaren berri ematen da.

7. Berrikusi

Orrialde bikoitzeko atala da, eta hiruhilekoan landutako edukiak errepasatzeko jarduerak ditu. Edukien arabera moldatutako jarduerak dira, baina atalak antzeko eskema du unitate guztietan.

